Sin./Fdo.: CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA - 2024-04-17
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2024-04-25
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00046/2024 - Data/Fecha: 2024-04-25
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-04-25
GZko 32.gaia onartuta - Aprobado, asunto 32) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA,** zeinaren bidez onesten baitira 2024. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia

**DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA** por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias 2024

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak esleituta dauzka indarreko ordenamenduak Bizkaiko Foru Aldundiari errepideen eta bizikleta-bideen arloan aitortzen dizkion eskumenak: errepide eta bideak planifikatu, proiektatu, eraiki, kontserbatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko eskumen esklusiboa, baina Euskal Autonomia Erkidegoak lurralde historiko bakoitzeko errepide-sare guztiak koordinatzeko dituen eskurantzak aintzat hartuta. Hori guztia honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.34 artikulua, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikulua eta 7.a.10 artikulua eta arlo bereko gainerakoak, 1985eko martxoaren 5eko 17/1985 eta martxoaren 12ko 31/1985 foru-dekretuak (biak aurreko lege hori garatzeko eman ziren).

El Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial tiene atribuidas las competencias reconocidas a la Diputación Foral de Bizkaia por el ordenamiento vigente en materia de carreteras y vías ciclistas: la competencia exclusiva en la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos, sin perjuicio de las facultades que la Comunidad Autónoma de Euskadi ostenta a fin de coordinar las distintas redes de carreteras de cada uno de los Territorios, todo ello de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, artículos 7.a) punto 8, 7 a) punto 10 y concordantes de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y con los Decretos Forales 17/1985 y 31/1985, de 5 y 12 de marzo, respectivamente, dictados ambos en desarrollo de la citada Ley.

Iraultza teknologiko eta sozial orokor baten aurrean gaude. Teknologia berriek, batez ere digitalizazioak eta automatizazioak, joera sozial berri batzuekin batera (esaterako, ingurumen-iraunkortasunaren aldeko sentsibilitatea eta erabiltzailean oinarritzen den mugikortasun kolaboratiboa eta partekatua), eragina dute pertsonen interakzioan, joan-etorrietan eta lankidetzan.

Estamos presenciando una revolución tecnológica y social global. Las nuevas tecnologías, principalmente la digitalización y la automatización, acompañadas de nuevas tendencias sociales como la sensibilidad hacia la sostenibilidad ambiental y la cultura de movilidad centrada en el usuario, colaborativa y de compartición, están impactando a la forma en que las personas interaccionamos, nos desplazamos y colaboramos.

Garraio-azpiegituren sektorean eta, zehatzago, errepideen sektorean, joera horiek mugikortasun-eredu berriak sortzen dituzte, pertsonen, ibilgailuen eta bide-azpiegituren arteko konektibitatearen garapenean oinarrituta daudenak eta ibilgailu

En el sector de infraestructuras de transporte, y particularmente en el de carreteras, esas tendencias se concretan en la aparición de nuevos modelos de movilidad, basados en el desarrollo de una conectividad entre personas, vehículos e

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

elektrikoa eta haren banaketa-sarea bultzatuz deskarbonizazioaren aldeko soluzioak eskaintzen dituztenak. Gidatze automatizaturantz eta garraio multimodal eta partekaturantz eboluzionatzen ari gara, non autoa oinarri duen garraioaren paradigma barik erabiltzailea mugikortasun-ereduaren epizentrotzat duen beste bat nagusitzen ari den: egunez egun ari da inposatzen errealitate hori. Beraz, bide-azpiegituren kudeaketak eta bide-sarearen jarduerak horretara egokitu behar dute berehalako etorkizun batean.

Azpimarratu beharrekoa da Euskadi, administrazio publikoaren maila guztietan, apustu sendoa egiten ari dela ingurumenaren babesean eta klima-aldaketa arintzearen alde. Urban Klima 2050 proiektuak 9 jomuga eta 24 jardun-lerro definitzen ditu Euskadik klima-aldaketaren aurka duen jarrera sendotzeko. Jomuga horietako batean, bide-azpiegituretarako jardun-lerroak eta ekintzak ezartzen dira, klima-aldaketaren aurrean haien egokigarritasuna eta erresilientzia sustatzeko monitorizazioaren, mantentzearen eta berrikuntzaren bitartez.

Berrikuntzak ekintza-tresna estrategikoa izan behar du errealitate berri horretara egokitzeko. Katalizatzaile bat izan behar du teknologia berriek, gizarte-eredu berriek eta ingurumenaren iraunkortasunak ezarriko dituzten erronkei eraginkortasunez erantzuteko; horrek dakar Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak egiten dituen jardueren balioa maximizatzea, Bizkaiko bide azpiegituretan ia 1.300 km kudeatzen dituelako.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak herritarrei foru-errepideen sare seguruago, modernoago eta fidagarriago bat eskaintzeko eta sare hori teknologia zein joera berrietara eta ingurumenaren iraunkortasunera egokitzeko sustatutako jarduketen parte dira dekretu hau eta beronen helburuak.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako

infraestructura viaria, y de soluciones que favorecen la descarbonización, a través del impulso del vehículo eléctrico y su red de distribución. La evolución hacia un despliegue de la conducción automatizada y los desplazamientos multimodales y de uso compartido, donde el paradigma del transporte centrado en el coche se transforma en otro focalizado en el usuario como epicentro del nuevo modelo de movilidad, es otra realidad que se impone día a día y a la que la gestión de las infraestructuras viarias y operación de la red viaria deben adaptarse en un futuro inmediato.

Cabe destacar la fuerte apuesta que Euskadi está llevando en cuanto a la protección del medio ambiente y la mitigación del cambio climático, en todos los niveles de la administración pública. El proyecto Urban Klima 2050 define 9 metas y 24 líneas de actuación con el objetivo de fortalecer el posicionamiento de Euskadi frente al cambio climático. Una de las metas establece líneas de actuación y acciones enfocadas a las infraestructuras viarias, para impulsar su adaptabilidad y resiliencia al cambio climático, a través de la monitorización, el mantenimiento y la innovación.

La innovación debe ser instrumento de acción estratégica para adaptarse a esta nueva realidad. Debe constituirse como catalizador para afrontar con eficiencia los retos que impondrán las nuevas tecnologías, los nuevos modelos sociales, y la sostenibilidad medioambiental, maximizando el valor en todas las actividades que desarrolle el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial en su condición de gestor de cerca de 1.300 km de infraestructuras viarias en Bizkaia.

Este Decreto y los objetivos en él perseguidos, forman parte del conjunto de actuaciones impulsadas por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial en su misión de proporcionar a la ciudadanía una red viaria foral cada vez más segura, moderna y fiable, adaptada a las nuevas tecnologías y tendencias, y medioambientalmente sostenible.

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005. En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del género.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la «Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia» aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

Araubidea oinarri hauetan ezarrita duten dirulaguntzak salbuetsita daude Europako Batzordeari aldez aurretik jakinarazteko betebeharretik, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren arabera.

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) 2023/2831, de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Diru-laguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Halaber, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hautapen, Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzkoak, 39 k) artikuluan xedatzen duenez, foru diputatuei dagokie Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzea, onar ditzan, bere sailaren berezko gaiei buruzko foru dekretuaren proiektuak. Kasu honetan, Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko foru diputatuari dagokio foru dekretu proiektu hau proposatzea.

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, 39/2015 Legean) aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Hori dela bide, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

Xedatzen da:

Artikulu bakarra.- 2024ko bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Testua ondoren txertatuko da.

Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde al diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial proponer este proyecto de decreto foral.

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015), y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia,

Se dispone:

Artículo Único. - Aprobar las bases reguladoras y ~~la~~ convocatoria del programa de subvenciones para la promoción de la innovación en infraestructuras viarias 2024 cuyo texto se inserta a continuación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIDE-AZPIEGITURETAN BERRIKUNTZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA 2024. URTEAN (IV24)

AURKIBIDEA


I. titulua – Xedapen orokorrak

- 1. oinarria. Foru-dekretuaren xedea.
- 2. oinarria. Entitate onuradunak.
- 3. oinarria. Diruz lagun daitekeen egitatea.
- 4. oinarria. Laguntzen zenbatekoa.
- 5. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 6. oinarria. Burutzeko epeak.
- 7. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea.
- 8. oinarria. Zenbat eskabide gehienez.
- 9. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura.
- 10. oinarria. Balorazio-irizpideak.
- 11. oinarria. Aurkeztu beharreko agiriak.
- 12. oinarria. Erakunde laguntzaileak.
- 13. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea.

II. titulua - Dirulaguntzetarako xedapen komunak

- 14. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak.
- 15. oinarria. Gastuen egokitzapena.
- 16. oinarria. Dirulaguntzak metatzea.
- 17. oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna.
- 18. oinarria. Laguntzaren publizitatea.
- 19. oinarria. Emandako dirulaguntzen argitalpena.

III. titulua – Dirulaguntzak esleitzeko prozedura

- 20. oinarria. Eskabideak nola aurkeztu.
- 21. oinarria. Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak.
- 22. oinarria. Espedientearen instrukzioa.
- 23. oinarria. Eskabideen ebaluazioa.
- 24. oinarria. Ebazpen-proposamena.
- 25. oinarria. Aurrekontuaren muga.
- 26. oinarria. Ebazteko epea.
- 27.oinarria. Ebazpena.
- 28. oinarria. Errekurtsoak.
- 29. oinarria. Dirulaguntzaria uko egitea.
- 30. oinarria. Jakinarazpen elektronikoa.


BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE LAS SUBVENCIONES PARA LA PROMOCIÓN DE LA INNOVACIÓN EN LAS INFRAESTRUCTURAS VIARIAS 2024 (IV24)

ÍNDICE


Título I.-Disposiciones Generales

- Base 1. Objeto del Decreto Foral.
- Base 2. Entidades beneficiarias.
- Base 3. Hecho subvencionable.
- Base 4. Cuantía de las ayudas.
- Base 5. Gastos subvencionables.
- Base 6. Plazos de ejecución.
- Base 7. Plazo de presentación de las solicitudes.
- Base 8. Máximo de solicitudes.
- Base 9. Procedimiento de concesión.
- Base 10. Criterios de valoración.
- Base 11. Documentación a presentar.
- Base 12. Entidades colaboradoras.
- Base 13. Pago de la subvención.

Título II.- Disposiciones Comunes a las Subvenciones

- Base 14. Criterios generales para la consideración de gastos subvencionables.
- Base 15. Ajuste de gastos.
- Base 16. Acumulación de ayudas.
- Base 17. Compatibilidad de las subvenciones.
- Base 18. Publicidad de la ayuda.
- Base 19. Publicación de las subvenciones concedidas.

Título III.- Procedimiento de concesión de las subvenciones

- Base 20. Presentación de las solicitudes.
- Base 21. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.
- Base 22. Instrucción del expediente.
- Base 23. Evaluación de solicitudes.
- Base 24. Propuesta de resolución.
- Base 25. Límite presupuestario.
- Base 26. Plazo de resolución.
- Base 27. Resolución.
- Base 28. Recursos.
- Base 29. Renuncia de la subvención.
- Base 30. Notificación electrónica.


Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

IV. titulua – Dirulaguntzen kudeaketari eta egiaztapenari buruzko xedapen orokorrak

- 31. oinarria. Azpikontratazioa.
- 32. oinarria. Justifikatzeko modua.
- 33. oinarria. Baldintzak aldatzea

Título IV – Disposiciones Generales sobre la Gestión y Justificación de las Subvenciones

- Base 31. Subcontratación
- Base 32. Forma de justificación
- Base 33. Alteración de condiciones.

V. titulua – Dirulaguntzak itzultzea

- 34. oinarria. Dirulaguntza erakunde onuradunak berak itzultzea.
- 35. oinarria. Ez-betetzeak
- 36. oinarria. Zehapenak mailakatzeko irizpideak

Título V – Reintegro de Subvenciones

- Base 34. Devolución a iniciativa de la entidad beneficiaria de la subvención.
- Base 35. Incumplimientos.
- Base 36. Criterios de graduación de incumplimientos

VI. titulua – Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak

- 37. oinarria. Zehapen prozedura.
- 38. oinarria. Deslokalizazioa.

Título VI – Infracciones Administrativas en materia de Subvenciones

- Base 37. Procedimiento sancionador.
- Base 38. Deslocalización.

Azken Xedapenak

- Lehenengo Azken Xedapena.- Araubide juridikoa
- Birragen Azken Xedapena.- Arauen garapena
- Hirugarren Azken Xedapena.- Aurrekontuko zuzkidura
- Laugarren Azken Xedapena.- Indarrean jartzea

Disposiciones Finales

- Disposición Final Primera.- Régimen jurídico.
- Disposición Final Segunda.- Desarrollo normativo
- Disposición Final Tercera.- Dotación presupuestaria
- Disposición Final Cuarta.- Entrada en vigor

I. ERANSKINA Baldintza Orokorrak

- Administrazio-baldintza orokorrak
- Baldintza tekniko orokorrak

ANEXO I Condiciones Generales

- Condiciones administrativas generales
- Condiciones técnicas generales

II. ERANSKINA Berariazko Baldintza Teknikoak

- Erabiltzen diren errepideetako zoru esperimentaleko geruzetarako berariazko baldintza teknikoak

ANEXO II Condiciones Técnicas Especificas

- Condiciones técnicas específicas para capas de firme experimental en carreteras en uso

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria- Foru-dekretuaren xedea

Oinarri arautzaile hauetako dirulaguntzen helburua da foru-errepideen sarea hobetzea eta modernizatzea, teknologia aurreratu berriak modu iraunkorrean eta ingurunean integratuan aplikatu eta probatu daitezen.

2.. oinarria- Entitate onuradunak

1. Pertsonalitate juridiko propioa duten enpresek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteek jaso ahal izango dituzte dekretu honetan arautūtako dirulaguntzak.

2. Erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gutxienez ere ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat izatea Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta, zentro horretan, gutxienez hiru langileko plantilla izatea.

Betekizun hori ez zaie aplikatuko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteei.

Baldintza hau, pertsona-kopuruari buruzkoa, eskabidea aurkezten den unean egiaztatu behar da, eta ebazpena eman eta ordainketa egin arte betetzen jarraitu.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak.

c) Ez egotea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) 42. artikuluan ezarritako egoeretariko batean.

d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan azaltzen diren inguruabarretako batean ere.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES.

Base 1- Objeto del Decreto Foral

Constituye el objeto de las subvenciones a que se refieren las presentes bases reguladoras la mejora y modernización de la red foral viaria a efectos de aplicar y probar nuevas tecnologías avanzadas, de forma sostenible e integrada en su entorno.

Base 2- Entidades beneficiarias:

1. Podrán acceder a las subvenciones reguladas en este Decreto las empresas con personalidad jurídica propia y los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

2. Las entidades beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Tener al menos un centro productivo, o de alto valor añadido en el Territorio Histórico de Bizkaia, con una plantilla mínima en dicho centro de tres trabajadores.

Este requisito no se aplicará a los agentes de la RVCTI.

Este requisito, en lo referido al número de personas, deberá acreditarse en el momento de presentación de la solicitud y mantenerse hasta el momento de la resolución y el pago.

b) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, con la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

c) No encontrarse incursa en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres (en adelante Norma Foral 4/2018).

d) No encontrarse incursa en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Goiko b), c) eta d) baldintzak automatikoki egiaztatuko dira.

Baldintzok ez betetzeak berekin ekarriko du erakunde onuradunaren izaera lortzeko debekua, eta debeku horrek berau eragin duten inguruabarrek irauten duten bitartean iraungo du, 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Los requisitos b), c) y d) se apreciarán de forma automática.

El incumplimiento de los requisitos supondrá la prohibición para obtener la condición de entidad beneficiaria. Dicha prohibición subsistirá mientras concurran las circunstancias que, en cada caso, las determinen, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005.

3. Kasu guztietatik kanpo geratzen dira sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak.

3. Quedan excluidas en todos los casos las Sociedades Públicas, Entidades de Derecho Público, las comunidades de bienes y las sociedades civiles.

4. Dirulaguntzaren bat jasotzen duten erakunde onuradunek 5/2005 Foru Arauaren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Bereziki, jasotako funtsak zertan erabili diren frogatzen duten agiri guztiak gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoen egiaztapen-jardueren eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, eta haiei lankidetza eskaini beharko baitiete.

4. Las entidades beneficiarias de las subvenciones vendrán obligadas al cumplimiento de lo establecido en los artículos 13 y 41 de la Norma Foral 5/2005. En particular, tendrán obligación de conservación de los documentos justificativos de la aplicación de fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control y obligación de colaboración con los órganos que tengan atribuidas funciones de control financiero.

5. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute; zehazki, modu aktiboan sustatu beharko dute emakumeen eta gizonen berdintasuna, eta lan-baldintza duin eta gizalegezkoak, diskriminaziorik sortzen ez dutenak, bermatu.

5. Las entidades beneficiarias de las subvenciones vendrán obligadas al cumplimiento de lo establecido en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, en particular deberán promover activamente la igualdad de mujeres y hombres asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

6. Dirulaguntzen erakunde onuradunek 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoa bete beharko dute; horren bidez, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira.

6. Las entidades beneficiarias de las subvenciones vendrán obligadas al cumplimiento de lo señalado en el artículo 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019 de 28 de mayo por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales.

7. Diruz lagundutako erakundearen betebeharra izango da, halaber, diruz lagundutako proiektua garatzea eta gauzatzea eskatzen duten eragiketen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak ere parte hartuko du hirugarren izaeraz. Alde horretatik, erantzukizuna izango dute, diruz lagundutako

7. Asimismo, será obligación de la entidad subvencionada indemnizar todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requieran el desarrollo y ejecución del proyecto subvencionado. Igualmente, de la condición de tercero participará la Diputación Foral de Bizkaia. En este sentido, incurrirán en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

proiektua garatzeari eta gauzatzeari buruzko esparruaren barruan, errepidean edo haren edozein elementutan kalteak eragiten dituztenek.

### 3. oinarria- Diruz lagun daitekeen egitatea

1. Bide-azpiegituren arloan berrikuntza-proiektuak egiteagatik emango da dirulaguntza; proiektu horiek koherente izan behar dute erakunde eskatzailearen jarduera nagusiarekin, eta foru-errepideen sarean aplikagarriak izan behar dute.

2. Bizkaian kokatutako ekoizpen-zentroak egin behar ditu diruz lagunduko diren proiektuak.

   Betekizun hori ez zaie aplikatuko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteei.

3. Bizkaiko foru-errepideen sarean aplikatzekoak izan beharko dute diruz laguntzen diren proiektuek, eta erakunde eskatzailearenak izango dira haien jabetza eta *know-howa*; Bizkaiko bide-azpiegituren esparruan aplikatzen diren jardueren gastuak bakarrik izango dira diruz laguntzekoak.

4. Diruz lagunduko diren proiektuak Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak ezarritako hiru lerro nagusietako bati egokitu behar zaizkio, eta harekin koherente izan. Hona hiru ildoak:

   4.1. ITS aurreratuak

   4.2. Azpiegitura adimenduna eta digitala

   4.3. Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra

Lerro horietan, besteak beste, honako proiektu-mota hauek sartzen dira:

*4.1. ITS aurreratuak*

a) Sistema kooperatiboak (C-ITS).

b) Wifi eta/edo 5G bidezko komunikazio-probak egitea konektaturiko ibilgailuetan.

c) Eskariaren kudeaketa: joan-etorriei buruzko

responsabilidad quienes, de cualquier modo y dentro del ámbito relativo al desarrollo y ejecución del proyecto subvencionado, causen daños en la carretera o en cualquiera de sus elementos.

### Base 3- Hecho subvencionable

1. Se considera hecho subvencionable la ejecución de proyectos de innovación en el ámbito de las infraestructuras viarias, coherentes con la actividad principal de la entidad solicitante y que sean de aplicación en la red viaria foral.

2. Los proyectos subvencionables deberán ser desarrollados por el centro productivo situado en Bizkaia.

   Este requisito no se aplicará a los agentes de la RVCTI.

3. Los proyectos subvencionables deberán ser de aplicación en la red viaria foral de Bizkaia, residiendo la propiedad y el know-how de los mismos en la entidad solicitante, considerándose subvencionables solo los gastos de actividades con aplicación en el ámbito de las infraestructuras viarias de Bizkaia

4. Los proyectos de innovación subvencionables deberán pertenecer y ser coherentes con alguna de las tres líneas principales establecidas por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, que son:

   4.1. ITS Avanzados

   4.2. Infraestructura Inteligente y Digital

   4.3. Sostenibilidad y Economía Circular

Estas líneas incluyen, entre otras, las siguientes tipologías de proyectos:

*4.1. ITS Avanzados*

a) Sistemas Cooperativos (C-ITS)

b) Pruebas de comunicaciones wifi y/o 5G en vehículo conectado

c) Gestión de la demanda: toma de decisiones,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erabakiak hartzea, ibilbidea aukeratzea eta plangintza egitea.

enrutado y planificación de desplazamientos

d) Joan-etorrien iraupenei eta ibilgailuen sorburuko/helmugako matrizeei, fluxuei eta trafikoaren egoerari buruzko datuak eta informazioa atzematea eta tratatzea.

d) Captura y tratamiento de datos e información de tiempos de recorrido y matrices origen/destino de vehículos, flujos y estado del tráfico

e) Gertaerak, intzidenteak, larrialdiak eta trafikoaren anomaliak denbora errealean detektatzea eta automatikoki erantzutea. Erabiltzaileei eta errepidearekin zerikusia duten agente zein operadoreei jakinaraztea halako egoerak.

e) Detección y respuesta automática de eventos, incidentes, emergencias y anomalías del tráfico en tiempo real. Comunicación a usuarios, agentes y operadores vinculados a la red

f) Ibilgailu astunak eta garraio bereziak kudeatzea. Jarraipena, kontrola eta monitorizazioa.

f) Gestión de vehículos pesados y Transportes Especiales. Seguimiento, control y monitorización

g) Ibilgailuei buruzko datuak eta informazioa atzematea eta tratatzea denbora errealean eta historikoan.

g) Captura y tratamiento de datos e información de vehículos en tiempo real e histórico

h) Planifikatzaile multimodalak eta mugikortasun-plataformak integratzea zerbitzu gisa.

h) Integración en planificadores multimodales y plataformas de movilidad como servicio

i) Trafikoaren kudeaketarako eta bide-segurtasunerako plataforma, mugimenduan dauden ibilgailuen datuen bidez (FCD) denbora errealean eta historikoan jasotako datuetan oinarritua.

i) Plataforma para la gestión del tráfico y la seguridad vial basada en datos de vehículo flotante (FCD) en tiempo real e histórico.

j) Bide-azpiegiturak diseinatzeko, eraikitzeko, erabiltzeko eta mantentzeko hodeiko zerbitzu-soluzioak.

j) Soluciones de servicio en la nube dedicados al diseño, construcción, operación y mantenimiento de las infraestructuras viarias.

*4.2. Azpiegitura adimenduna eta digitala*

*4.2. Infraestructura Inteligente y Digital*

a) Bide-sareko sentsorizazioa, monitorizazioa, automatizazioa eta segurtasuna, batez ere elementu kritikoetan (tunel, ezponda eta bidezubietan), azpiegituren jarduera aurreratua egin ahal izateko.

a) Sensorización, monitorización, automatización y seguridad en la red viaria y, principalmente, de sus elementos críticos -túneles, taludes y viaductos-, para una operación avanzada de la infraestructura

b) Kontrol topografikoa –datuak hartzea eta monitorizazioa- lekuan bertan eta azpiegituran.

b) Control topográfico –toma de datos y monitorización- en el terreno y la Infraestructura

c) Aktiboen inbentarioa: bide-sarearen ezaugarri geometrikoen, elementu funtzionalen eta ekipamenduaren digitalizazioa eta automatizazioa.

c) Inventario de Activos: Digitalización y automatización de las características geométricas, elementos funcionales y equipamiento en la red viaria

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

d) Aforoei buruzko datuak hartzea. Intrusiboak ez diren teknologiak, datuak denbora errealean ematen dituztenak.

d) Toma de datos de aforos. Tecnologías no intrusivas y con datos en tiempo real

4.3. *Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra*

4.3. *Sostenibilidad y Economía Circular*

a) Hondakin-materialak berrerabiltzea eta bide-zoruen geruzetan birziklatzea.

a) Reutilización de materiales de residuos y reciclaje en capas de firmes

b) Zaratarik ateratzen ez duten zoladurak.

b) Pavimentos silenciosos

c) Ikuspen handiko seinale horizontalak.

c) Señalización horizontal de alta visibilidad

d) Azalera fotoluminiszenteak.

d) Superficies fotoluminiscentes.

e) Energia-kontsumoen eraginkortasuna eta karbono-aztarnaren murrizketa.

e) Eficiencia de consumos energéticos y reducción de la huella de carbono

f) Bide-azpiegiturak eraikitzean eta haietan jardutean ingurumen-inpaktu txikiagoa izateko neurriak.

f) Medidas para un menor impacto ambiental durante la construcción y operación de las infraestructuras viarias.

5. Diruz lagun daitezkeen proiektuek, garatzen diren bitartean, nahitaez bete beharko dituzte Bideen Berrikuntzarako Zerbitzuko langileek trafikoan, errepidean bertan eta jabari publikoa osatzen duten gainerako elementuetan izango duten eragina behar bezala arautzeko eskatzen dituzten administrazio-jarraibideak eta jarraibide teknikoak.

5. Los proyectos subvencionables, durante su desarrollo, estarán sujetos a las directrices administrativas y técnicas requeridas por el personal del Servicio de Innovación Viaria para regular adecuadamente la afección al tráfico, la propia carretera y el resto de los elementos que componen el dominio público.

6. Edonola ere, proiektuek ez dute sexuan oinarritutako bereizkeriarik egingo, eta sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerrarazteko ahalegina egingo dute.

6. En todo caso, los proyectos no serán discriminatorios por razón de sexo y deberán procurar la eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.

7. Honako proiektu hauek ez dira joko diruz laguntzeko moduko egitatetzat:

7. No se considerarán como hecho subvencionable los siguientes proyectos:

a) Bizkaiko bide-azpiegituren esparruan aplikatzekoak ez diren proiektuak.

a) Proyectos que no sean de aplicación en el ámbito de las infraestructuras viarias de Bizkaia.

b) «Funtsezko ikerketa» edo «industria-ikerketa» egiteko proiektuak, Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzearen ondorioz (2014-06-26ko AO, L 187), zenbait laguntza-kategoria barruko merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Batzordearen Erregelamenduan jasotako definizioarekin bat (aurrerantzean, 651/2014

b) Proyectos de "Investigación fundamental" o "Investigación industrial" de acuerdo con la definición recogida en el Reglamento (UE) 651/2014, de la Comisión, de 17 de junio de 2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (DO, L 187, de 26-06-2014) (en adelante Reglamento (UE)

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

(EB) Erregelamendua).

c) Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren Bizkaiko Bide-azpiegituretan Berrikuntza Sustatzeko 2020-2023ko Planaren helburuekin bat ez datozen jarduerak eta/edo ez direnak sartzen Azpiegituretarako eta/edo Lurralde Garapenerako Sailari dagozkion eskumenen eremuaren barruan.

651/2014).

c) Las actividades que no sean coherentes con los objetivos del Plan de Innovación en Infraestructuras Viarias de Bizkaia 2020-2023 del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y/o no se encuadren dentro del ámbito de competencias del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

## 4. oinarria- Laguntzen zenbatekoa

1. Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, diruz lagun daitekeen gastu bakoitzari %70eko laguntza-intentsitatea aplikatuko zaio.
2. Erakunde eskatzaile bakoitzeko eta lagundutako proiektu bakoitzeko jasotako laguntza ez da 100.000 eurotik gorakoa izango.
3. Proiektu bakoitzean, langileen barne-gastuengatiko laguntzaren gehieneko zenbatekoa honako bi zenbateko hauetako txikiena baino txikiagoa izango da:
   - 25.000 euroko gehieneko muga.
   - Hirugarrenek egindako zuzeneko gastuetarako laguntzaren zenbatekoaren bikoitza.
4. Ez da 6.000 eurotik beherako dirulaguntzarik emango. Muga hori ez da aplikatuko laguntzaren azken zenbatekoa dekretu honen 16. eta 17. oinarrietan ezarritako laguntzen metaketa- eta bateragarritasun-irizpideen ondorioz egindako murrizketa baten emaitza bada, edo erabilgarri dagoen kreditua agortu delako egin den murrizketa baten ondorio bada.
5. Zerbitzuan dauden errepideetako bide-zoruen geruzetako materialetan probak egiteko proiektuetarako soilik, laguntzaren zenbatekoari 70.000 € gehitu ahal izango zaizkio gehienez. Zenbateko horrekin, ordaindu ahalko dira deialdiaren «BALDINTZA TEKNIKO ESPEZIFIKOAK EGUN ERABILTZEN DIREN ERREPIDEETAKO BIDE-ZORU ESPERIMENTALEKO GERUZETAN» izeneko eranskinean adierazitako kalitate-

## Base 4- Cuantía de las ayudas

1. El importe de las ayudas se obtendrá de la aplicación de una intensidad de ayuda del 70 % a cada gasto subvencionable.
2. La ayuda recibida por entidad solicitante y por proyecto apoyado, no superará los 100.000 euros.
3. En cada proyecto, el máximo de ayuda por gastos internos de personal será inferior a la menor de las dos cuantías siguientes:
   - Límite máximo de 25.000 euros
   - El doble del importe de ayuda en concepto de gastos directos ejecutados por terceros.
4. No se concederán ayudas inferiores a 6.000 euros. Este límite no será de aplicación cuando el importe final de la ayuda sea resultado de una reducción por aplicación de los criterios de acumulación y compatibilidad de ayudas establecidos en las bases 16 y 17 del presente decreto o cuando sea debida al agotamiento de la disponibilidad presupuestaria.
5. Exclusivamente para los proyectos de pruebas en materiales de las capas de firmes en carreteras en servicio, la cuantía de ayuda podrá incrementarse en un importe máximo adicional de 70.000 €. Esta cuantía servirá para cubrir los gastos asociados a los ensayos de seguimiento del control de calidad señalados en el Anexo "CONDICIONES TECNICAS ESPECIFICAS EN CAPAS DE FIRME EXPERIMENTAL EN CARRETERAS

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kontrolaren jarraipen-saiakuntzei lotutako gastuak, bai eta lehendik dagoen bide-zorua kentzeko eta ordezkatzeko lanak ere.

## 5. oinarria- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Laguntza-programa honetan aurkeztutako proiektuen diruz laguntzeko moduko oinarria zenbatekotzeko, proiektuaren aurrekontua hartuko da kontuan. Aurrekontuak kontzeptuka desglosaturik egon behar du.

2. Zehatzago, hirugarren batzuek eginiko lanen zuzeneko gastuak (hornidurak, obrak edo zerbitzuak) diruz laguntzekoak izango dira, halako gastuek zuzeneko lotura badute proiektuarekin (diruz laguntzekoak ez diren gastuen kasuan izan ezik).

3. Aurkeztutako proiektuak iraun bitartean, proiektua burutzeko lanari dagozkion barneko pertsonal-gastuak. Kontzeptu horren barruan sartuko dira soilik soldata gordina eta gizarte kargek (Gizarte Segurantza) erakunde eskatzaileari eragiten dizkioten pertsonal-gastuak. Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

$$\frac{\text{G.S.K.O.} \times 12 \times 1{,}25}{\text{Urteko ordu kopurua}}$$

Non:

i.) G.S.K.O.: gertaera arruntak direla-eta langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko hileko kotizazio-oinarria da. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonei dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

ii.) Urteko ordu-kopurua: langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean, urteko 1.720 ordu hartuko dira.

EN USO" de la convocatoria, y los trabajos de retirada y reposición del firme preexistente.

## Base 5- Gastos subvencionables

1. Para la cuantificación de la base subvencionable de los proyectos presentados a este programa de ayudas se atenderá al presupuesto de la actividad, desglosado por conceptos de gasto, presentado por la solicitante.

2. En particular, se considerarán subvencionables los gastos directos ejecutados por terceros (suministros, obras o servicios), directamente vinculados al proyecto, excepto los indicados como gastos no subvencionables.

3. Gastos internos del personal destinado al proyecto, en lo que se refiere a trabajo dedicado al proyecto presentado durante el tiempo que éste dure. Se entenderán en este concepto aquellos que correspondan a los gastos directos de personal por salario bruto y cargas sociales por cuenta de la entidad solicitante (Seguridad Social). El cálculo del coste horario de cada persona se realizará del siguiente modo:

$$\frac{\text{B.C.S.S.} \times 12 \times 1{,}25}{\text{N° horas anuales}}$$

Donde:

i.) B.C.S.S. es la base mensual de cotización por contingencias comunes de la persona trabajadora a la Seguridad Social según el último RNT disponible. En el caso de personas adscritas a otros regímenes de cotización se tomará una base asimilada a la del régimen general de la Seguridad Social.

ii.) N.º de horas anuales es el número de horas laborales anuales de la persona trabajadora, según convenio, afectado en cada caso por el porcentaje de reducción de jornada correspondiente si la hubiere. Por defecto se aplicarán 1.720 horas anuales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: BZS5-K8OP-O587-38Z1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Diruz laguntzeko oinarria kalkulatzeko, gehienez 3 pertsona hartuko dira kontuan 3 eta 50 langile bitarteko enpresen kasuan, eta 5 pertsona gehienez 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan.

Nolanahi ere, ez du gaindituko 120 orduko kopurua proiektuko eta hileko 3 eta 50 langile bitarteko enpresen kasuan, ezta ere 240 orduko kopurua proiektuko eta hileko, 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan.

Justifikazioan, esleipen-unean onar zitekeen gehieneko ordu-kopuru bera onartuko da, proiektuaren epeen aldaketak gorabehera.

4. Ondoko hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

a) Hirugarren batzuek eginiko zuzeneko gastuak, 1.000 € (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituztenak. Salbuespen gisa, beste gastu batzuk onartuko dira, baldin eta haien sortzapena edo ordainketa epetan edo lotetan zatitu bada, eta adierazitako zenbatekoa baino gutxiagoko justifikazio-agiriak sortzen badituzte; horretaz gain, seriean zehar trazabilitate argia egon behar da, aukera izan dadin egiaztatzeko dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptu berari lotutako kopurua osoa 1.000 euro edo gehiago dela.

b) Zergak eta tasak, BEZa barne (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere bai), eta kanpoan utzita jabetza industriala babesteko prozesuei lotutako tasak.

c) Zeharkako gastuak.

d) Proiektuaren enpresa sustatzaileen edo bazkideen arteko fakturazioa.

e) Gastu orokor osagarriak, adibidez administrazio gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).

Para el cálculo de la base subvencionable se considerará un máximo de 3 personas en el caso de empresas de entre 3 y 50 personas y un máximo de 6 para empresas con una plantilla superior a 50 personas.

En cualquier caso, el cómputo horario admitido en concepto de gastos internos no excederá de 120 horas por proyecto y mes en el caso de las empresas entre 3 y 50 personas, ni de 240 horas por proyecto y mes para empresas con una plantilla superior a 50 personas.

